

Hezkuntza politikako auzi hutsa da

MARINA GRZINIC

Pentsa dezagun hezkuntza erakundeez, katedraduneez, irakasleez eta ikasleez, eta azkenik, baina ez garrantzi txikiena duelako, baita jakintzaz ere politikaren ikuspuntu, kategoria eta prozesuetatik. Era horretan, ezin da tresnarik (teknologiaz bagara) edo paradigmatik (teoriaz, ikus-arteaz eta abarrez ari bagara) jakintza ekoiztu eta banatzeko nolabaiteko auzo-prozesu errugabe batean aplikatu daitekeen tresna edo kategoria gisa ulertu. Era horretan, ez bakarrik jakintza erakundeak ihes egin diezaiokete boterearen, kapitalaren eta ekonomiaren *arrazionalizazio* eraginari; baizik, horrez gain, jakintzaren ekoizpen eta banaketa prozesuan erabiltzen diren metodologia eta teknologiak ez dira soilik ikusten trebetasun, hobekuntza, erraztasun eta eguneratze ideia zein diskurtsoei soilik eta bakarrik lotutako kategoria aurrepolitiko gisa. Are gehiago, hezkuntza erakundeez harremanak azaltzeko horrelako *Grammatika* erabiltzeak adierazten du prozesu politiko zehatz batek era aurrepolitikoan mantentzen dituela teoria, ikus-arte, jakintza nahiz hezkuntza erakundeak. Kapitalismo globalak berdintasunaren burdinazko lege zorrotza ezartzen du mundu osoan; horra zergatik hitz egiten dugun mundu globalaz! (kapitala globala da!) Baina kapitalak era lizunean globalizatzen duenaz at, beste gainontzeko guztia lokalizatu egin behar da! Kapitalismo globalak zehazki hori esan nahi du, kapitala bakarrik dela unibertsala eta era librean mugi daitekeena batetik bestera, kapitala dela mundu osoko erabateko herritar global bakarra. Horrela, Alain Badiou-ren *Logiques des mondes* (Munduen logikak, 2006) saioak -mundua berridazten duelarik ez mundu bakartzat, baizik *mundurik gabekotzat*-azpimarratzen du, hain zuzen, ez bakarrik kapitala dela herritar unibertsal bakarra, baizik *mundua* (azpi)mundu askotan sakabanatuta dagoela, *mundurik gabekotzat* ikusia izateraino. Kapitalak pentsamendu-prozesuak trebetasun bihurtzen ditu, ikasten ari direnei, beraz «mundurik gabeko munduko etorkizuneko herritarrei», ekintza eta politika koordenatu iraunkorrak kenduz. Hezkuntza sistema, bateratuagoa bihurtu da, nolabait esateko ulerterraza, eta hori baino garrantzitsuago, trukaeraza; trebetasunak ekoiztu eta zirkulazioan jartzeko makina garden bihurtu da hezkuntza.

Gaur egun, trebetasun anitzeko artistak ekoizte aldera jakintza sistema eguneratuak sortzeko egin diren proposamenak (AEBen eraginpean den Europako Batasunean), guztiz saio aizunak dira. Gaur egun benetan gertatzen ari dena Kirsten Forkert-ek idatzitakoaren bidez uler daiteke. Dioenez, kontraesanak daude gaur egungo giro politikoan fakultateko eta ikasketak amaitu ondorengo praktiken artean. Forkerten ustez, gertatzen ari diren aldaketak «oso loturik daude arteak salgai gisa duen balioarekin, eta artistak *idun zuriko profesionalei* buruz duen zereginarekin. Bi gertakariok nolabaiteko aldaketa politiko eta ekonomikoen zantzuak edo erantzunak dira»¹.

Ondorioz, jakintza ekoiztu, banatu eta erakundetzeko kapitalak egin dituen aipatuta esku-hartzeak azken ahaleginak dira, unibertsitateak nahiz fakultateak ikasle trebatuak ekoizteko zuzendaritza-erakunde bihurtu daitezkeen. Esku-hartze horren azken xedea, kapitalak dagoeneko gaur egungo gizarteko beste maila guztietan zabaldu duen gisan (eremu publikoetan, erakundeetan, eskubide zibiletan eta artean), despoltizazioa da. Ekonomiatik

hezkuntzara doan guztia forma eta erakunde erabat apolitiko bihurtzen da gaur egun.

Irakaskuntzan oso noizbehinka aritu izana nintzen (Anverseko Hisk-en irakasle gonbidatu gisa eta abar), 2003an Vienako Arte Ederren Fakultateko irakasle izendatu nindutenean, arte post-kontzeptualeko praktiketako departamentu/klasean irakasteko. Irakasle postu bat onartzea erabaki politikoa da. Nire ustez, oso zaila da hierarkiaren boterea desegitea, izan badelako eta hori delako erakundearen funtsezko zereginetako bat. Guk irakasle gisa ditugun asmo on guztiak ez dira aski, kapitalaren burdinazko lege zorrotzak, soberakinak zorrozki murriztearen legeak, fakultateak eta unibertsitateak arautzen baititu.

Vienako Arte Ederretako Fakultateko arte post-kontzeptualeko praktiketako departamentuan teoria irakasten dugu, baina kontua ez da, soilik, ikasleei jakintza hutsa ematea arte-ikasketaz, ikus-arteaz edo kulturaz. Ikasgelan artelana teoriarekin batera testuinguruan jartzen da, horrela atzean dagoen testuingurua islatu, eta arte eremuko praktikak eta politikaren munduak zein puntutaraino elkar ukitu eta elkar kutsatzen duten ikusarazteko. Gu saiatzen ari gara Kirsten Forkert-ek ikasketak amaitu ondorengo praktikei buruz dituen gisako ideiak mahaigaineratzeko, kontzeptualizatzeko eta eztabaidatzeko plataforma bat errotik irekitzen: “Ikasketak amaitu ondorengo praktikak auzitan jartzen du artea trebetasun teknikoa edo sormen adierazpide mutua den ustea, eta estudioan edo ikasgelan gertatzen dena gure bizitzaren gainontzeko alderdietatik erabat bananduta dagoen ustea. Ikasketak amaitu ondoko praktikaren alderdi batzuek auzitan jartzen dute, baita ere, artistak pertsona erromantiko eta heroikoak (gehienetan gizonezkoak eta zuriak) direla, eta beren lanaren testuinguru politiko edo ekonomikoa kontuan hartzen ez dutela. Bestalde, fakultatean irakasten diren ikasketa amaitu ondoko praktikek zenbateraino jartzen dituzte auzitan autoretza edo sinadura estiloaren ohiko definizioak?”

Testuinguru hori eduki berri bat bihurtu dezakegu.

Marina Grzinic

Ljubljana-ko filosofo, artista eta teoriararia da. Vienako Arte Ederren fakultatean irakaslea da, eta ikerlaria Filosofiako fakultatean (Esloveniako Arte eta Zientzietako Akademiako Zientzia eta Ikerketa Zentroan).

OHAR ETA ERREFERENTZIAK

ⁱ Cf. Kirsten Forkert, “Can Post-Studio Art School Function as a Place of Resistance in an Immaterial Economy?” *Mind the Map! – History Is Not Given* Marina Grzinic, Guenther Heeg eta Veronika Darian. Irwin, Ljubljana, relations, Berlin, University of Leipzig and Revolver, Frankfurt, 2006.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu